

EBAZPENA, 2026ko EKAINAREN 30ekoa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN BAITA 2026ko EKAINAREN 23ko EBAZPENA, IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREEN KONTRATUAK ESLEITZEKO LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEKOA

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2026ko ekainaren 23ko ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen UPV/EHUko irakasle laguntzaile doktoreen plazetarako kontratuak esleitzeko, eta 413. hurrenkeran PADCL2-D00212-8 barne kodedun plaza zegoen, Giza Anatomia eta Enbriologia jakintza arlokoa.

Bigarrena.- PADCL2-D00212-8 plaza oker sartu da deialdian eta, hortaz, bertatik kendu egin da 2026ko ekainaren 23an.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, erabaki hau emateko, hala xedatzen baitu Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpenak, gobernu taldeko kideen ordezkapenei buruzkoak.

Bigarrena.- Honela dio 109.2. artikuluan urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak: ***Administrazio publikoek edozein unetan zuzen ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoa.***

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 2026ko ekainaren 23an argitaratutako deialditik PADCL2-D00212-8 plaza kentzea.

Bigarrena.- Erabaki hau dagokion sailari jakinaraztea eta unibertsitatearen webgunean argitaratzea (Irakasleak- Deialdi bideratuak). Irakasle-ikertzaileen Zerbitzuko dagokion atalak hala egiteko beharra kontuan hartzea.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioke UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.

Leioan, 2026ko ekainaren 30ean.

Sin.:

Efren Areskurrinaga Mirandona
IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEA